

Mikel Zarate eta euskera baturako bideak¹

ZUGAZAGA MARTIKORENA, Lontzo
1980-04-15ean

Sarrerakoa

Jaun-andreok:

Mikeli eta haren lanari buruz zerbait esan edo idatzi beharra dodan bakoitzean, itsaso zabalegi baten aurrez aurre aurkitzen nazala iruditzen jat eta, lehenengotan, atzerantz eragiten deustan bultzada ezkutu bat somatzen dot neure barruan.

Halan bere, itsaso zabal eta sakonak beti ohi dauanez, badau Mikelek bere, niretzat behintzat, zeozelan erakarri egiten nauan berezko girotze eta zirrara sakona sortuazoten deustan sorgindura eta lilura zoragarri bat.

Hori dala-eta, gure Mikelen inguruan eta haren baturantzako bidea jasotzen ahaleginduz hitzalditxu bat egin ete neikean eskatu eustenean, baietza emon neban. Asko pentsatu barik emon neban, egia esateko, baietz hori. Baina zor bat neukan eta zor hori zeozelan ordaindu gura neban. Ugari edan dodan euskereari, Derioko Udako Ikastaroei eta Mikeli hainbeste zor neutsielako, ordainsari makal eta urritxu hau eskeintzea zuzentasunak eskatzen eustala neritxon.

Mikelen heriotz urtemuga, lehenengo urteurrena ospatuz alkartu gara hemen, eta lagungarri izan daiteke guztiontzat Mikelen izaera eta pentsa-

¹ Lontzo Zugazagak hitzaldi hau 1980ko apirilaren 15ean eman zuen, Mikel Zarate zendu eta urtebettera. Hitzaldia bizkaieraz idatzia dago, eta egileak idatzi bezala argitaratu dugu. Hots, Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen zerbitzuak ez du zuzendu.

moldea, haren erizpidea eta jokabidea. Izan bere, gidari eta biderakusle dogu edo izan dakiguke Mikel euskeraren arloan, aspaldiko nahaste, ilunpe, alkar hondatze edo alkar aditu ezin ugari, antzu eta itoen artean.

Eztabaidagarria izan daiteke gaia, baina Mikelen jokabidea aztertzen eta adierazten ahaleginduko naz, neuk egin daikedan zuzentasunik handienaz.

Hiru atal izango ditu hitzaldi honek:

1. Mikelen izaera
2. Giroaren eragina
3. Euskera baturako bideak.

1. Mikelen izaera

Mikelen izaerak badauka zerikusirik nahiko beraren jokabidearekin. Nik, txikitxu nintzala ikasi neban harako *operari sequitur esse*, eta harrezkero, beti jakin izan dot izaera eta jokaera, izaera eta eginbidea ezinbestezko ezkontza baten buztarturik egozana. Mikelekin batera urteetan bizi izan ondoren, argi be argi ikusi izan dot haren bizibidea. Mikel ez da izan inorekin hasarratze-koa. Zerbait inori ezarri egiteak, bide bakar bat dagoala entzuteak, eta bide bakar hori goirik behera ezarri egin behar dala entzuteak, beti emon izan deutso tristura eta mindura Mikel bihotz-zabalari.

Biziaren maitale gartsu izan da beti, eta legekierak bizia gogortu, leiperatu egiten dau, mogimendua kentzen deutso, izoztu egiten dau ezelako oztopo barik dantzari doan erreka. Mikel beti izan da gauzen eta izakien berezko biziaren maitale. Naturaltasunak beti poztu izan dau haren bihotza. Derioko jatordu osteko ekitaldiak, lagunekin mendira egiten zituan ibilaldiak, Lau-roetako Meza osteko alkarrizketak, auto-stopean ezagututako pertsona izenbakoakazko bat-bateko hartu-emonak, eskola osteko ikasleakazko alkarrizketa biziak, bolalekuan pentsatu-pentsatu barik egindako apustuak, txitean piteango kopletaldiak eta tertuliak dira dinodan horren lekuko.

Mikelek zerbait idazten eban bakotxean, beti eskeintzen eustan liburu edo dana dalakoa, argitaratu baino lehenago, neuk ikusi nengian. “Zugazaga” barik “Zehatzaga” haz hi, esan ohi eustan sarri burlazar eta, horregaitik,

zuzenketaren bat egiten baneutsan edo beste eretxiren bat nik azaltzean, prest egoten zan aintzat hartu eta aldatu behar zana aldatzeko.

Ondotxu ekian Mikelek pertsonak alkarrizketa bidez osotu eta aberastu egiten zirana. Berbaldiren bat egin behar ebanean beti etortzen zan haren itaunen akulugana, ez gu mintzeko, gugandik jaso eikeana bereganatu eta beretzeko baino.

Gure herriak danetariko burrukalariak eta era guztietako gudariak behar jozak, esan ohi eban sarri, eta nik ezin baztertu neikek inor eta, era berean, ez neukek gura nire lana inork baztertzerik ere. Bakotxak geuri dagokigun haritik jokatzuz, eta besteak baztertu barik bideak urratuz, begirune eta itzalik handienaz bizi behar dogulako.

Haren heriotz ondoko hileta-eresi baten, holantxe agertzen neban nik Mikelen izaera:

“Mikel,
berariazko nortasunen
itzal eta begirune,
Jainko eta gizonon abade,
zure zeutasunez
besteen eurentasuna
sendotu eta maitatuz
egiazko batasun egile”.

Eta nire hitzok etziran neure asmamen eta irudimenaren frutu iheskari; haren izaeraren eta hitzen oihartzun makal baino etziran.

“*Ipuin antzeko alegi mingotsak*” argitaratu barria zala, liburuaren eskeintza egin eustan, idazten zituan liburu guztietan egin ohi eustan lez. Eta holan jarri eustan eskeintza horretan:

“Lontzo,
hona hemen nire neutasuna
zeure zeutasuna
sendoagotu dagizun”.
Zure adiskide Mikelek.

Nire ustez, nerabe gaztetxu baten antzekoa izan da Mikel. Osoan senti-bera batetik, eta bestetik mundu zabal baten aurrean guztia xurgatu guraz, biziaren mozkorrean igerian bizi izan jaku.

Horregaitik, Mikelen arnaseak baeukan halango nasaitasun eta mugabakotasun alai bat, gaztetasunaren eta berezkotasunaren freskotasun igurtzi bat, halango errespeto, itzal eta begirunezko askatasun girotze bat.

Orduan, jokera eta jokaera desbardinetako lagun askok, alkarrizketa bizi eta pozgarriak, samin eta suminik bakoak, bizkortzaile eta laguntzaileak izan ditue sarri gure Mikelekin, “Mikel gurearekin”, adiskideek esan ohi geuntsanez.

Euskerearen oihala, batetik tiraka eta bestetik tiraka, tarratadaz bete eta zatitu eta sakabanatu barik, guztion lanez, jakituri az eta arduraz barriztatu, sendotu eta gaurkotzea gura izan dau Mikelek. Ola zahar eta ola barriz, euskal herriko burdina inozkorik sendoen eta argien landu nahi izan dau. Ultrakeria eta muturreko jokaera guztiek ok eragiten deutsoe Mikeli, bere barruko errotan bihotz eta birikiak garrazterainokoan, osasunaren kaltetan, eta burubideak itotze giro batean itsutzerainokoan. Hainbeste eztabaida eta amorru eta hasarre irakinen artean, Mikelen barrua sarri aurkitu izan da minduraz, erraiak har gosekil batek jango baleutsoz lez, arnastuz, ito behar-reen, begiek dakusenetik, belarriek dantzuenetik bihotzak nahi leukeanera zubia luzarazteko nahi izate hutsa gitxiegi dana konturatuz.

Horregaitik esan deutsoe norbaitzuek keko-meko dagoala, ur bitara dabilela; honako itsasoak eta itsas-adarrak bat egiten dabean lekuan ontzia gustura balego lez, han orekan egon eta irautea berezko eta erraza balitz lez. Ultrakerien ziurtasunaren babesa hori baino berera eta samurragoa da, duda barik, nahiz eta zingirako urak eta aterpe gozoan babestutako munduak antzukeria gorrian murgiltzeko arrisku larria izan.

2. Giroaren eragina

“Lehenaren amets zahartuaren
eta barrikeriaren haize zoratu artean
zentzunezko bide egokia urratu nahian.”

Gaurko gizartearen giro nahastuan, ziurtasun eta jarrera garbiak gura dabezan gizon-emakume ugari izatea bidezko da zinez. Izan bere, gizakientzat ezinbesteko baldintza da seguridadea, oreka eurenganatu ahal izatea. Eta holango giroa arnasten dabenen artean ez da mira egitekoa erradikaltasun eta ultrakeriak ernetzea, salda bero eta lur gurian erradikaleriek azpiegitura ongarri eta ernari gorria izaten dabelako. Holan, gure herrian, aspalidaniko nahaste izugarriak askoren begiak lausotu, bihotzak grinatu eta buruak itsutu egin ditu. Eta gehienon ezjakinak, “analfabeto” izateak, larriagotu egin dau giroaren nahas-mahas eta zurrumbilo horren eragina.

“Faszismoa sartu da konturatu gabe zenbaiten buru eta burubideetan”, inoskun Mikelek Bergarako Batzarrean. “Barra-barra ibili dira gure artean era honetako esaldiak: “Bizkaiera, eskoitiar burgesek bakarrik egiten dute”; “hemen batua baino besterik ez dugu onartzen”; “guk ez dugu andereño batuzalerik onartzen, hatxezalerik ere ez”; “espainolisten asmakizun bat da batua, euskara hondatzeko”...

Eta aintzat hartzekoa da Mikelen gogoeta: “Bakoitzak bere euskara sartu nahi du leku guztietan, derrigorrean eta arrapaladan, beste jokabiderik onartu gabe, inor ez ezer errespetatu gabe, faszisten gisa, euskara batu hau edo hori edo euskalkiak balira bezala euskararen etsai. Euskararen etsairik handiena erdara dela konturatu gabe, euskararen akatsik handiena etxeko euskaratxotik euskara literariora dagoen aldea dela konturatu gabe, euskararen egoerarik larriena euskalkiak beren etxeetan preso egotea dela konturatu gabe, faszismoarn hatzaparpetan erortzeko arriskua dugu guztiok”.

Giro horren barruan egin izan diran hiru aukera nagusi aztertuko ditut:

2.1. Lehenaren ametsetan

Batzuren erradikaleriak lehenera jo dau: igaro dan aldi baten minez, lehenaren minez eta amets gorpuztuez baliatu da. Horretara, euskara batua-
ren aurka dihardue jo eta ke. Euren ustez ez da garbia oraingo euskara barri hori, hatxez eta erdal hitzez josia dagoelako; hor agertzen dan joskera bera ere kutsatua ikusten dabelako.

Aranatarren giroko garbizalekeriak eragin sakona izan dau eurongan, eta garbizalekerian izan ezik ezin dabe benetako euskerarik ikusi. “Erdara asko jakin behar da euskera hori ulertzeko”, esan ohi dabe. Izan bere, alde bateko gehiegikeriak bestaldeko gehiegikeria dakar. Neuk ere autortu beharra daukat: Ipar aldeko euskaltzain batek behinola honelan esan eustan: “espainol gehiago jakin beharko nuke nik Bizkaian duzuen aldizkari bateko idazlan batzuk aitu ahal izateko”. Eta hori esan eustan euskaltzaina ez zan ultrakerien menpeko gizona.

Mikelen ustez, eta nire ustez, talde honek asko galdu dau. Talde honetako hainbat benetan ikasiak dira, eta gerra ondoren hainbat idatzi dabe, eta jakinaren segurutasunak galdu eta barriro ikasten hasi beharrak nekea sortu deutso hainbati. Nekeak eta garraztasunak eta euskaldun barri batzuk, atzo goizeko euskaldun batzuk, goirik beherako iraultza egiteko ahalmena ukan daikeelako kezkeak sumindu eta erre egin ditu. Eta hortik sortu dira, berez ernetako bedar txarrak bailirean, garrasi, amorru eta eztabaida biziak.

Eta Mikelek berak Bergaran esan ebanez, lehenaren ametsean lekutzen diranok, “Aranatarren euskera berri garbia bakarrik gura dute. Euskara batuaren, euskara batu biziaren aurkako batu bat egin nahi dute, Arana bera ere gaur bizi izan balitz ezkertiar batuzale iraultzaile bat izango zela konturatu barik. Erdizkako batu bat egin nahi dute, erdara hitz eginez eta idatziz sarri askotan, benetako batu biziaren aurka doan batukeria garbia”.

Talde honek badauka, “deigarri” bezala erabiltzen dauan esaldi bat: “Guk herriko hizketa ta hizkuntza jagoten dogu”, eta ez jakitun barri edo sasijakitun batzuk asmatu egiten daben “euskara batua” dalako hori. Jakin beharko leukie, baina, honeek ere: Mogel eta Añibarroren alditik eurengana bitartean iraultza bat izan dala, eta euren euskera, herri-herriko euskera barik, iraultza horren ondorio ere badala eta Aranatarren giroko aldakuntzakaz sordun direana. Izan bere, herri-herriko hizketa hutsez ez da baliatzen idazle bat bera ere. Herri-herriaren hizkereak adar asko ditu eta bati oratzean lekukerietan (lokalismoetan) eror daiteke erraz horrelako aukera egin dauana, beste herrialde batzuetako euskaldunentzat ilun, ulergatx eta ulertezin bihurtuz.

Halan bere, talde hori egon egiteak, bai lehen eta bai oraintsu ere, euskereari mesede egin deusala uste dot. Honetaz Mikelegaz sarri berba egin

neban, eta bata bestearengandik oso gertu gengozan arlo honetan. Hutsak eta okerrak autortuta ere, mesede ere egin dabela uste dot, sustraietan sendo iraun dabelako. Prisazko batu “standar” zaleen aukereak zorakeria gehiegitara eroan gaikazan, eta arinkeriaz, helburuen lilurak zoratuta, “laboratorio-mozkor” baten murgildu eta amildu. Arrisku horretatik askatzeko indar izan dirala uste dot lehenaren amets zaleok, nahiz eta, agiri baten behintzat, talde hori erabat galtzaileena izan. Euskereari zerbitzu bat egin deutsoela autortu behar, eta ez orduan bakarrik, baita aspalditxuon ere, askoren ustez galga kaltegarri eta atzerakoi huts izan diran arren. [Izan ere, argia da berbaldia egin nebanetik gerora euskalkiek izan daben estimazinoa, nahiz eta idatzietan nahiko baztertuta irauten daben].

2.2. Geroaren ametsaren uhinetan

Lehengo guztiaren aurka dagoz aukera hau egin dabenak. Gaur egunekoa ez dan edozeri “alergia” deutsoe. Lehenago ere, gizaldi biren artean baziran burrukak, eztabaidak eta alkar aditu ezinak, esan euskun aspalditxu On Jose Migel Barandiaran handiak. Oraingoan, ostera, gure aldian, “eten” bat egin da. Barrikeriaren olatu dantzari eta bizkorretan bakarrik bizi daiteke gaurko gazte asko. Barrikeriaren haize zoratueta bakarrik aurkitzen dabe arnasbiderik.

Hemen, batuaren aukerea, berez ernea balitz lez sartzen da. Sasoi bako-txak badau bere “esnobismo” bat edo bere lilura. Gazteon arteko askorengan sukarraldi eta urdurikeria bizia sortu da. Helburuaren lilurak indar erakarlea izan dau eurontzat eta, askorentzat ez da izan euskerarik orain eurak ikasten ari diran “batu estandartizatua” sortu arte. Euskalki guztiak euskal-keria dira. Ez dago euskerarik; ez da izan benetako euskerarik. “Euskara da euskaldunon hizkuntza”.

Gurasorik bageko seme-alabak edo gurasoak hil gura dabezan seme-alabak agertu jakuz, zoritxarrez, euskal alorrean. Oinarriak non dabezan? Begira:

- Lehenean murgilduta eta tinkotuta bizi diran erradikalak aurrez aurre;
- Gizaldien arteko “etena” eta alkar aditu ezina;

- Helburua behingoan lortu nahia, asmoak gaur bertan egia bihurtu nahia;
- Euskara “standar” bat goirik behera guztiei ezarri nahia;
- “Snobismoaren” eta modearen bultzada;
- Barrikeriaren haizeetan hegaz egin gurea.

“Batua” askorentzat “slogan” indartsu bihurtu da eta hor ere egon da itsukeriarik nahiko, eta ezjakinen artean itsukeria ilunagoa.

Eta batuzaleon artean sortu izan da beste jokera bat ere. Gurasoak hil eta asabengana jo, gaurko euskera batua prestatu eta antolatzerakoan. Jokabide honek gogait eragiten eutson Mikeli behin baino sarriago: “Euskara batuaren sortzaile eta eragile gisa agertzen diren batzuk ere, euskara batu bizi jatorraren kontra doaz, gaurko euskaldunen euskarari jaramon handirik egin gabe Lapurdiko literatura zaharrean oinarriturik, beren euskara batua bortizki toki guztietan sartu nahi dutenean. Begira: gure hizkuntza berritzatzeko egin den ahalegin bakoitzean lehenera, iturburuetara jo izan dugu beti, alegia, lehenagoko euskal liburuetara. Eta hizkiak, hitzak, aditzak eta abar aztertu, ta eginahalak egin izan ditugu gure hizkuntza goimailartzeko, ondoko hizkuntzen parean jartzeko, jatortasunez, zehaztasunez eta logikaz eraberritu eta indarberritzeko. Baina konturatu-ta edo konturatu barik, herriko hizkuntza bizi koloretsutik alde egin dugu gehienetan. Eta zahar kutsuzko edo laboratorio kutsuzko euskara batu bat egin dugu gure herriaren eta gure hizkuntzaren kaltetan. Bilbon 1958. urteko batzarrean L. Villasantek esan zuenez, “literaturak eztu euskera bizia menderatuko eta bere bidera ekarriko. Bai zera! Guri dagokiguna da euskera biziari jarraitzea, andik barne-izerdia atera eta erriko euskerak bizituko du gure literatura, eta orobat literaturak bere babesa emango dio euskera biziari. Erritik aldendurik dabilen literatura, gezurrezko zerbait biurtzen da, izerdirik eta gizenik gabekoa. Zaletu bakan batzuek entañoatzeko aukerakoa. Minoria edo gutxirengo batentzat ona” (EUSKERA IV, Bilbao, 1959, 102).

Mikel gogait eginda dago, aspertuta, zaharkeriazko kutsaduraz bizibidea eta arnasbidea ito egiten daualako jarrera horrek: “Ni neu behintzat,

egia esateko, gogait eginda nago Axularrez eta Leizarragaz. Euskararen historian [...] oso interesgarriak izango dira, euskararen aldakuntzak ikusteko, euskara zaharra ezagutzeko, baina gaurko euskara bizi batu egoki bat egiteko ez dut uste egokienak direnik, eta gutxiago nahi eta nahi ez leku guztietan sartzeko. Askosaz egokiagoak dira ta askosaz gaurkoagoak, nire ustez, erdi bazterturik ditugun Larramenditarren giroko idazleak: Kardaberaz, Mendiburu, J.B. Agirre, Mogel, Añibarro, Aita Bartolome..., batzuk aipatzearren, eta geroagoko Tx. Agirre, Urruzuno, Kirikiño, J. Etxepare, Hiriart-Urruty eta abar”. “Bizipenen bultzadaz” olerki liburuan, Bi 1978, 36-37 orrialdeetan irauli eban Mikelek kezka arnas xurgatzaile hori:

Bestela ito egingo nauzue, hil

“Ez!
 Ez!, ez!
 Ez! Ez! Ez!
 Ez dut nahi gure hizkuntzaren
 zaharkeriazko kutsaduraren
 etengabeko zurrunbiloaren
 zurrupa mareagarriaren
 zorabiozko jirabiraren
 goitika higuingarriaren
 ezinegon larriaren
 bizi ezinaren
 ezinean bizi.
 Ez dut nahi lehenaren itzalean
 galduriko euskararik,
 lehenaren lurpe humelduan
 ustelduriko euskararik,
 lehenaren urkamendi garratzean
 hildako euskararik.
 Ez dut nahi hitz, aditz, hizki
 hizkuntza arkaiko ukergaitzik;

ez dut nahi axularkeriarik,
 ez dut nahi aranakeriarik;
 ez dut nahi sitsak jandako euskararik,
 euskara herdoildu hatsitu momiatu-
 rik. Euskara bizi berri batu gazte bat nahi dut,
 gaurko arnasa, izerdi ta odolez oratua,
 baserri ta hiriz osotua,
 gozoa ta garratza,
 leuna ta latza,
 garbia ta zikina...,
 egunerokoa,
 edozertarakoa.
 Atera nazazue,
 mesedez, faborez, otoi,
 museotik,
 kanposantutik...,
 bestela ito egingo nauzue, hil”
 (Ik. “Bizipenen bultzadaz”, Bi 1978, 36-37 orrialdeetan).

Batuzaleon jokera honek ere baditu, duda barik, bere balioak, sarritan hutsak eta okerrak nabarmenago agertu izan diran arren. Hara!

- Aurrerakoia izatea;
- Helburuetara jotzea eta idealak aurrean jartzea;
- Ikasteko gogo bizkortu eta ugaritzea;
- Urak mogidu eta hainbat lagun lotatik iratzartzea;
- Gazteentzako euskalzaletasun bultzagile gertatzea;
- Kontzientzia barria, giro barria sortzea; behar-beharrezkoa genduan batasunerako kontzientzia eta asmoa bizkortzea;
- Euskaldun barri askorentzat bide urratzaile bilakatu izana.

Eta Mikelek bizi maite dau euskeraren hiriko emari barria. Begira!

Euskararen hiriko emai

*Euskaldun berri izandakoei
euskaldun berri direnei
eta euskaldun berri izango direnei.*

“Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
zuekin lotsaz beti
herri hobendun.
Euskal etorkizun
jatorraren zai
zaudeten euskaldun
ikasi alai,
mutil ta neska,
adiskide min,
zuentzat nahi dut
kantatu bat egin.
Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
hiri eta baserri,
zuekin zordun.
Gora euskararen
hiriko emai,
zuengatik baita
orain kulturgai!
Gora zuen amets
eta ahalegin,
ezina egina
baita zuekin!
Lehen euskaldun berri,
orain euskaldun,
zuekin Euskal Herri
piztu dezagun”.
(Ik. “Bizipenen bultzadaz”, Bi 1978, 57-58 orr.).

2.3. Derioko asmoa

Aspaldiko urteotan ukan dogu beste jokabide bat ere, hirugarren bat, nahiz eta askok ahaztu ezjakinez edo itzitasunez, edo alboratu berenberegi jakinaren gainean.

Derion, Seminario Ikastetxean, asmo barri bat sortu zan 1968-1969.eko ikasturtean. Amets moduko zeozer izan zan hasieran guretzat: “Datorren udarako Euskal Ikastaro bat prestatu behar joaguk”. Urte honetan bertan ere izan ei zan ikastaro moduko ekitaldi bat, Julian Olazabalaga abadeak eratua. Ni ez nintzan izan tarteko eta ez neban ezagutu; orduan ezin dot horretaz ezer adierazo.

Ondo gogoan dot Ander Manterola, Karmelo Etxenagusia eta Mikel Zarategaz egindako gogoeta, ikastaroa antolatzeke asmoa hazurmamindu guran. Ander Manterolari bururatu jakon asmoa eta, behingoan hasi ziran Karmelo eta Mikel asmoa egi bihurtu eiten ahaleginik bizienak egiten eta apunteak prestatzen. Han nenbilen neu ere, abade barri eta euskera irakasle nintzala Seminario Ikastetxean, baliabide horreek ikasleentzat “multikopiak” prest jartzen.

Holan sortu zan Derioko Udako I. Euskal Ikastaroa, 1970. urteko uztailean gauzatu. Eta Udako Euskal Ikastaroa sortu zan sasoiari irakiten ebilen gure artean halako burruka eta nahaste-borraste eztabaidatsu bat. Arantzazuko Batzar (1968) ospetsuaren ostean aurkitzen ginan, ilusino barriz eta bide barriak urratzeak beragaz dituan iskanbila eta tirabaira konponezintan. Urte hareetan “tojuvaboju” bizia zan gure ingurua.

Udako Euskal Ikastaroak ez dau eztabaida horretan parte hartzerik gura izan, aurreragoko eta beharrezkoago zan eginkizuna eukalako gogotan, hau da, euskaldunen ezjakintasun arrunta ezereztu, ezjakintasun hori izan dalako, gainera, nahaste, eztabaida eta burrukak ugaritu eta bizitu dituana.

Gure jokabidea nondik nora joan dan? Ahozko hizketatik hizkuntza landu batera eta euskera landu batetik euskera batu batera, euskera batua ez dalako guretzat beste hizkuntza bat, alde askotan batuta dagoanetik batua-go batera jotzea baino.

Norbaitek esango dau, beharbada, erdibide antzerako hori ez dala jatorra, garbiegia, puritanoegia dalako, honako beste bideen ezelako akats eta orban eta errurik barik, goragoko mailan, hegaran bezala, arbitro antzera dagoanaren irudia eskeintzen daualako, inoren ez ezeren ikutu kutsarazle barik balego lez agertzen jakulako.

Begira! Goian aitatu dodazan jokera bien topekadak ez dira izan guretzat urruneko, honako aharitoen topekadak kanpotik ikustea lez. Bai zera! Topekada horreek geu ere sarri jo gaitue. Ez gara ibili kanpotiko epaile zorrotz huts modura. Batzuren eta besteen alde on eta txarrak ikusi, eztabaidatu eta aztertuz gainera, gutariko bakotxaren pentsamoldeetan eta jokabideetan eragin zirkinarazleak bultzatu ditue. Ez gara egon egonean, jokalekutik kanpo, barruan gertatzen danari kanpotik begira. Geuk ere jokatu egin dogu, asko eta askoren euskera lantzen eta alfabetatze bideetan laguntzen jardun dogu Seminario Ikastetxean, Seminario Nagusian, Udako Euskal Ikastaroe-tan, E.G.B. / OHOeko Irakasleen Eskolan, Deustuko Unibertsitatean, Hizkuntza Eskola Ofizialean, e.a. Langile izan nahi dogu euskal alorrean; eta indarrak lanean erabili eta eralgitea egokiagotzat jo dogu, alkarregazko buruketan nekatzea baino, nahiz eta burruka bidez ere gauzak argitu daitekezana aintzat hartu.

Gure jokabidean garrantzi handia emon deutsalgu beti helburuak lortzeko, helmugara heldu ahal izateko urratu behar dogun bideari. Oinarrizko zentzunak eta pedagogiak halan eskatuta, zehaztuz eta argituz joan da gure bidea: “badakigunetik ez dakigunera, hizketatik (lekukotik) hizkuntzara; hemen, lehenengo bizkaiera eta bizkaieratik batura”. Holan, helburuak argi ukan doguz, argi eta indar erakarle izan ditugu, baina, era berean, sustraiak ere aintzat hartu doguz eta ez doguz alboratu. Erro eta sustrairik gabe landare sendorik egin ohi ez danez, hizkuntzaren sendotasunik ere ezin daitekelako lortu, lurtean errotua, euskera bizian sustraitua ez dagoanean.

Mikeli berari itziko deutsalgu Derioko Jokabidea azaltzen. Holan dinosku bere Euskal Deklinabidea (1975) liburuaren hitzaurrean: “Bizkaieraz nator. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi eta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako. Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan edo, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere,

bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskera osoaren biotzean dagoan euskera. Eta euskera dan ezkerro, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oinarrian) dagoan euskera batua, betitik batua dagoan euskera. Eta euskeraren oinarrian dagoan euskera batu ori ezagutu bear dogu, leenengo ta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko.

Baiña onexegaitik nator, batez ere, bizkaieraz: bizkaitarrentzat idazten dodalako eta bizkaitarrak ere bizkaieratik baturantz, batutik batuagorantz, euskera osora eroan gura ditudalako. Gure euskeratik euskerara eroan nai ditut bizkaitarrak berez-berez, errez-errez, igarri barik. Derrigorrean, nai ta nai ez, izkera ta idazkera aldatzea ezifia da. Egia esan, aldatu daitezke, eta beingo baten egin ere, gogorkeriaren bitartez. Baiña gogorkeria ta indarkeria ta alkeria aundia bear orretarako. Eta, gaiñera, leentxoago edo gerotxoago, gogorkeriak gogorkeria dakar, eta gogortasunik ere ez daukagu, zoritxarrez, guk eta....

Hasieratik hona, egia esateko, geroago eta argiago ikusi izan dogu euskera batu baten preminea, eta aukera hori egiteak eskatzen dituan ikasbideak antolatzea ere geroago eta ezinbestekoagotzat jo izan dogu. Gure lehenengo aukerea, ezjakintasuna kentzea izan zan. Ezjakintasunak, izan ere, zabarkeriara eroaten gaitu. Eta txokokeriak eta zabarkeriak euskerearen zatiketara eta euskera batuaren aurkako ausardia lotsagarriara garoez.

Nahiko argi ikusten genduan euskera batua ez ezik euskalkiak eurak ere hondatu geinkezana. Horixe izango litzatekean euskeraren hondabiderik aproposenatariko bat, eta erdara batura berehalaxe joteko ibilbiderik aukerakoena. Txokokeria eta zabarkeria azpiratuz eta gaudituz, oinarrizko batu batetik euskera batuaren aukerea egin genduan, osterantzean gure hizkuntzarentzat hondamena aurreratu geinkeana kontuan hartuz.

1968. urtean Arantzazuko Batzarrean Lekuonak eta Mitxelenak esandako hitzak aintzat hartu genduzan: “Euskera biziko bada, batu egin bear, anka-bakartu egin bear..., bizitza dezan, eta ugariago dezan, indartsuagoa dedin, alegia; errextuta, laburtuta, batuta, geiagok mintza dezan”. (EUSKE-

RA XIII, Bilbao, 1968, 141 or.) “Ezinbestekoa, il-edo-bizikoa dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea”. (EUSKERA XIII, Bilbao, 1968, 203 or.)

Baina “demokrazia bidez lortu nahi baldin badugu Euskal Herri batu bat eta hizkuntza batu bat, hori errespetozko askatasunez lortu behar dugu, euskara batua eta euskalkiak errespetatuz, euskalki guztiak baturako bidean begirunez, jakituriaz eta zentzunez jartzeko ahaleginak eginez”, Mikelek Bergaran inoskunez.

3. Baturantz

Eta hemen lekutzen da Mikelen bizkaieratik baturako jokabidea, berak “baturantz” izenez bateatu eban jokaera, haren izaerak eta haren inguruak girotze bat lortu daualako, eta girotze honek haren buru-bihotzetan helduaro bat umotu daualako. Izaerak eta giro nahastuan hartutako aukerak oinarritu dau Mikelen erispidea eta jokabidea.

Eta 1968. urtetik 1978. urtera bitartean, arlo honetan bizi izan dauan arnasea, Bergarako Batzarrean azaldu eban gehienbat Mikelek, hara hurre-ratu aurretik Derioko Mogimenduko garan batzukaz alkarrizketa luzeak izan ondoren.

1978ko Uztailaren 7an agertu jakun Mikel Izaban (Erronkari bailaran), bez-peran Lezaman 40 urtetik gorakoen herriko txapelketako pelota partidua, finala, jokatu eta irabazi ondoren. Txapeldun geratu zalako, pozarren etorren, hamasei urteko gaztetxo bat balitz lez. Ni, neure familiako talde bategaz nengoan Erronkarin, eta guztiok poztu ginan etxeko genduan Mikel geure artean ikusteaz, eta hain pozik aurkitzeaz. Aste bete igaro genduan Erronkarin eta hango “Zaltua” ostatuan hainbat ordu emon zituan Mikelek, irailean Bergaran egiteko zan hitzaldia prestatzen, goizetan mendietara ostera batzuk egin ostean.

3.1. Euskera batua

Euskera/Euskara batu bat behar-beharrezkoa da, ezinbestezkoa da Mikelen eretxiz. Poztu egiten zan bera Deustura joan-etorrietan. Izan bere,

“euskara batuaren modak indar erakarle ikaragarria izan dau hainbat gazterengan, gazte talde batzuen buru-bihotzetan, euskaldun analfabeto, euskaldun ikasi eta euskaldun barriengan. Eta kontzientzia barri horren eraginez, gaurko gazteek etxeko, herriko eta herrialdetako “euskaratxo” gainditu eta euskara batu bat egin nahirik ari dira elkarrizketetan, kantuetan, idazkietan, hormetako pintadetan... Kontzientzia berri horren eraginez, abeslari eta ameslari, gaurko gazteek euskaraz egiten dute gure hiri zapaltzaileetako kaleetan, erdal unibertsitateetako auletan, ezina egina bihurtu gurarik”.

Eta gazteen arteko arnas barri hori guztiongana zabaldu eta hedatzea nahi leuke Mikelek. Begira: “Ez dut uste, -dino-, esanak esan ta eginak egin, orain arte honelako kontzientziarik eta bultzadarik izan denik inoiz Euskal Herrian gure hizkuntzaren alorrean. Eta euskara batua egiteko, euskaldun guztientzat ulerbide jator pozgarri izango den euskara batu bizi bat egiteko, kontzientzia hori balute euskaldun guztiek, beste hamar edo hogeitau urte barru, beharbada, euskara baturik egongo litzateke eta Euskal Herriak nortasun et zertasun berri bat izango luke, dudarik gabe”.

Mikelek bazituan bihotz-jausialdiak euskerearen etorkizunaz hausnartzen hasten zanean. Azken urteotan, halan bere, baikorrago agertzen jakun, herrietako “ikasiek” euskeraz berba egiten ebela eta euskeraren alde euskeraz ziharduela ikustean. Gure herriaren sabelean, –“haurgintza minetan” dagoan Amaiairen sabelaren irudi–, seme jator eta orokor baten itxaropena arnasbarritu jakon Mikeli azken urteetan.

“Egia esan, badugu gehienok kontzientzia hori eta ez dut uste euskara batuaren, geroaren sabel erdimintsuan jaioko den euskara batuaren aurka, *batua* abstraktoki hartuta, inor dagoenik, euskaldun abertzaleen artean behinik-behin” inoskun Mikelek.

Baina zentzunezko ohar bat egiten euskun:

Euskara batua esatean, batzuk *batua* bakarrik hartzen dutela kontutan esan genezake. Baina *euskara* (izena) lehenago da *batua* (izenlaguna) baino. Batu egitea ez da itsu-itsuan, bero-beroa, arrapaladan eta goirik behera ezarrita lortu behar dan helburua. Bizitik, komunikabide bizitik jo behar dogu komunikabide bateratsu bat lortzera.

Euskalkiak lehenago dira euskara batua baino, oraingoz, bizirik, euskalkiak bakarrik ditugu-ta. Hala ere, euskalkiak elkarganatu ta batu egiten ez baditugu, euskara batu bat euskalkien bitartez egiten ez badugu, euskalkiak eurak ere, gaurko bideetatik badoaz, behintzat, hondatu egingo dira ta Euskal Herria Erdal Herri bihurtuko da.

Goitik behera euskara batu bat jartzea oso erraza da, esperantoa bezalako euskara batu bat egitea oso erraza da, baina komunikabide izateko euskara batu bat egitea ez. Behetik gora joatea, euskalkiak euskara batu baterantz bultzatzea dugu, ba, lehenbiziko eginbeharra. Ta horretarako, nahi ta nahi ezkoa dugu, alfabetatzea, alfabetatu egitea.

Gure herria analfabetoa da ta alfabetatu egin behar da lehenengo ta behin, euskara batu bat egiteko; alfabetatu euskaldunak berek dakitenetik, beren euskalkietatik ez dakitenera joanez, euskara baturantz joanez, pedagogía eta irakasbide zuzen baten arauera. Euskaldun berriekin zabalkiago jokatuko nuke, noski; baina, hala ta guztiz ere, lekuan lekuko izanik, euskalkiak kontutan hartuta.

“Horixe izango litzateke lehenengo pausua. Hain zuzen ere, alfabetatu ondoren, euskara baturako oinarrikerik behinenak jarririk daude”. Handia da alfabetatzearen eragina Mikelentzat. “Baturako biderik handiena ere egina dago horrela, edozein euskalkik bai du, alfabetatzea mailan, batuaren ehuneko hirurogei ta hamabost gutxienez”.

“Badakit hizketa biziaren gatza indargetu egiten dena horrela, alfabetatzeak kolorea ta grazia kentzen diona hizkera bizi nahastuari. Baina premiazkoagoa dugu oraingoz bizia, zehaztasuna ta batasuna, gatza ta kolorea baino”. Urte batzuk lehenago Kirikiño zuhurrarentzat zanez, bizia da nagusi Mikelentzat ere. Kirikiñok herri mailan holan idazten eban bere pentsamoldea adierazoz: “Naiz ta anka barik egon, bizi daitela Simon”.

Honezaz gainera, benetako batu jator bat egiterakoan, euskalkikeriak eta batukeria, bitzuok jotzen ditu kaltegarritzat Mikelek, baina kaltegarriagozat batukeria euskalkikeria bera baino ere. Sustraietan murgiltzeari hobeto deritxo, helburuetara hutsetik eta legekieraren bultzadaz jotzeari baino. Hara:

Beste alde batetik, alfabetatzearen ekinean, dakigunetik ez daki-gunera joatean, euskalkietatik baturantz joatean, euskalkikeriaren

eragozpena dugu. Hala ere, biak kaltegarriak izanik ere euskara batua egiteko, euskalkikeriaren eragozpenak kalte gutxiago egiten due-
la uste dut batukeriaren eragozpenak baino.

3.2. Oinarrizko aukera garbia

Euskara batuaren aukerea egin dau Mikelek, ezinbestezko eta hil edo bizikotzat daukalako; baina hizkuntza arlo zabala da, eta sail bakotxa aztertuz ikertu behar dogu mendi zabal hori.

Mikelen ustez, mailadi bat dago hizkuntzan, eta goitik behera eta nahi eta nahi ez, oso-osoan eta ezelango bereizketa barik ezin erabili daikegu euskara batua. Hainbat gitxiago oraindino, bilaketa eta sakontze aldi baten gabiltzan bitartean. Bizitzako beste arazo guztietan gertatu ohi danez, hemen ere araudi-batzarrei aldi bat eskeini behar deutsegu, sasoa –aldi ego-
kia– bideratuz joan daiten. Aroa berez noiz datorren begira egon barik, girotu egin behar dogu, baina ezarri ezin egin daikegu. Arloa ondo ikusiaz gainera, hortik jo behar dogula onartu behar dogu bide barriak urratzen ahaleginduz, baina ez behartu.

Eta alfabetatze bidean hizkuntza mailak argi eta garbi bereiztu beharra dago, errezenetik gaxenerainoko mailak egoki zehaztuz. Irakaskuntzan hizkuntza mailok kontutan hartu eta bakotxaren apartekotasuna zaintzea ezinbestezkoa dogu. Honelan iragartzen deusku Mikelek berak:

Inola ere ezin izan daitezke euskara berdinak poesian, saio batean, biltzarre hontako hitzaldi batean erabiltzen duguna eta ipuin batean, sermoi batean edo zortzi-hamar urtetako neskato-mutikoei zerbait irakasteko erabiltzen duguna. Pedagogia zuzen batek eskatzen due-
nez, bereiztu egin behar dira irakaskintzan hizkuntza mailak. Eta euskara batua dela eta ez dela, anitz oker ibilte egin ditugula uste dut gure ohitura zahar baten eraginez, beharbada, hau da, euskal idazleok euskal idazleentzat bakarrik idazten dugula, herria eta herriko hizkuntza mailak eta euskalkien hedadura kontutan hartu gabe.

Hizkuntza komunikabide da, eta horregaitik ezin jausi daiteke ezelan ere eta ezelango arrazoiengaitik ere “elite” edo taldetxu ikasi eta aurrerakoi

baten berariazko “ghetto” izatera. Guztiontzako komunikabide gerta daite-
la da gure asmoa, eta ez sekula ere, lehengo oinarrizko lokalismoez gainera
beste taldekeria bat sortzea, zati guztiei zati bat gehiago gaineratuz. Eta guz-
tiontzat komunikabide egoki izan dadin, badogu zereginik ugari, guztienga-
na egokituz, bakotxak badaukagun eta badakigunetik, guztiona dogun hel-
buru bakarrera joan gaitez. Lekuan lekuko ez dana, ez da gertatuko berez
mundu osoko gizon; erderaz esan ohi dan “ciudadano del mundo” bihurtzea
iruzur eta kontu zahar bat da, ameskeriazko mundu bateko gizon baino
besterik ez izatea gerta daiteke. Izan bere, inon sustrairik ez dauana ez da
inongo, eta inongo ez dana inor izatea nahiko gatxa dala deritxot.

Entzuleak, ikasleak, irakurleak badauka zerikusirik arazo honetan, eta
pausoak emotean, bideak urratzean, kontutan hartu beharrekoa izango da
zein “generotan” gabiltzan, ipuina, poesia, nobela, saioa... e.a., eta nori
zuzentzen gaiakozan.

3.2.1. Ortografiaren arazoa

Nahastetsu eta eztabaidagarri dan eta izan dan idazkera arlo honetan
erizpide eta jokabide argia dauka Mikelek. Idazkera bakar baten alde dago,
lurrealde guztietan eta hizkuntza maila guztietan. Entzun daiguzan beraren
hitzak: “Alfabetatzean, hizkuntza mailak jartzean, irakaskintzan... ortogra-
fia bat erabiliko nuke nik. Lapurteraz, gipuzkeraz, bizkaieraz..., ortografia
bat erabiliko nuke. Euskaldunekin, euskaldun berriekin, gazteekin eta zaha-
rrekin ortografia bat erabiliko nuke. Koldo Mitxelenak 1968. urtean Aran-
tzazun gogorki esan zuenez, “euskara idatziaz ari bagara..., eta ortografiaz
ezin badugu..., nola arraio egingo dugu batasuna?” (ik. Euskera XIII, Bilbo
1968, 248). “Egia da, ortografia aldetik ez dago euskalkien eragozpenik eta
atxakiarik ta behar-beharrezkoa dugu ortografia batua” inoskun Mikelek
Bergaran.

Guztiok idazkera bereaz baliatzeak nekea dakar; halan bere, euskal idaz-
kera (ortografia) erdarakoa baino askosaz errazagoa dala dino Mikelek. Er-
darazkoa ikasteko zenbat ordu emon dogu, eta zenbat euskarazkoa ikaste-
ko? Horra hor koska!

Euskerazko lehenengo idatzietatik eta orain arte, gorabehera asko izan dau idazkerek, baina puztutze eta behar ez dan ugaltze eta inork arrazoitu bageko jokaera batzuk kendu ezker, batasuna nahiko erraz lortu geinkela uste dau Mikelek. Zein bidetatik? Horra erantzuna beraren hitzetan: “Mendez mende euskaraz izan den ortografia ikusirik, 1968. urtean Arantzazun jarririko arauak direla uste dut egokienak, orrazketa bat edo beste egin ondoren; Arantzazun Euskaltzaindiak, Euskaltzaindi bezala jarririkoak, eta ez geroagoko ‘h’aren eta ‘n’aren eta ‘l’aren eta abarren inflazioak”.

3.2.2. Morfologia eta Lexikoa

Aspaldion aurrerakuntza ikaragarria egin izan da morfologia eta lexiko arloan, batasunerako bide egokiak urratuz.

Txillardegik, Villasantek eta Mikelek euren lanak argitaratu zituenetik hona argibide asko eskeini izan jaku. Deklinakera bat bakarra erabiltzearen alde aurkezten jaku Mikel, baina hemen ere zabal jokatu gurarik agertzen jaku, lekuan lekuko izatearen aurka joan barik:

“Deklinabidea gehien batean baturik dugu eta ortografia bezala deklinabide bat erabiliko nuke nik beti euskerazko idazki guztietan, deklinabide batu bat, batek gizonagaz idatzi duela gizonarekin idatzi beharrean, edo gizonarekila idatzi duela eta beste gabe, haserre bizitan jarri gabe; buruarekin edo buruagaz jo dut jarri duela batek buruaz jo dut jarri beharrean eta, haserre bizitan jarri gabe; Berlina ta Zarautza baino uleterrezago badira Berlinera eta Zarautzera, hauek erabiliz eta abar”.

Euskalkietako hitz bereziak ere, hizkeran eta literaturan hedaturarik handiena dabenak, erabili egin behar geunkez batu bideetan. Idazle askok jokatu izan dau honelan eta Mikelek ere, honetaz ezer idatzi ez arren, erabili egiten izan ditu beste euskalkietan ugari erabiltzen diran hitz batzuk.

Aurrizki eta atzizkiak gure hizkuntzaren aberastasun izugarri bat izan dira, eta aberastasun hau gehitu egin da aspaldion, erdal aurrizki batzuk onartuz eta erderetiko emoiak euskaldunduz.

“Aurrizki eta atzizki aldetik egin den aurrerapiderik handiena, erdal aurrizkiak onartzea eta erdal prestamoak euskalduntzea izan da. Asko ikasi dugu euskara batua dela eta ez dela, ta baturako bide berri asko urratu ere bai”.

Hitz bardintsuak dirala eta, erradikal batzuk tarteko izanik, badabil erexien burruka, honako semantika edo esangura bardina daben hitz bardintsuak –euskalkien berezitasunak tarteko dirala– alternatiba bezala, “aut aut”, bata ala bestea aukeratu beharra balego lez, honako batak besteak iruntsi behar balitu lez. Gauzok huskeria bat dira Mikelentzat. Euskera osoaren barruan aztertuz, eta zabaltasun osoz onartu behar litzatekezala uste dau, bata ala bestea barik, bata zein bestea erabiltzeko aukerea eskeiniz, aberastasun horrek inori kalterik ez dakartsolako. Hara:

“Hor ari dira radikal batzuk *ongi* ala *ondo*, *baino* ala *baizik*, *nola* ala *zelan*, *axola* ala *ardura*, *bezala* ala *legez*, *gibel* ala *atze*, *aitzin* ala *aurre*, *nahi* ala *gura*, *ahaztu* ala *ahantzi*, *etxetik* ala *etxerik*, *izango* ala *izanen*... , zein aukeratu behar den baturako, ahalbait arinen erabakitzeko”.

“Euskara osoaren barnean eta kultura maila batean eta hizkuntza mailak bereiztuez gero, huskeria bat dela hori esango nuke nik eta *ocurrir*, *suceder*, *pasar*, *acontecer* eta *acaecer* gaztelania batukoak diren antzera, biak onartu behar ditugu batuan oraingoz eta geroago ere bai, beharbada. Ondo ongi dago, ba, eta ongi ondo edo ontsa”.

3.2.3. Aditza

Euskera batuaren arloan, baina, arazorik astunena eta larriena aditzarena da, aditz laguntzailearena berariazko eran, berau dogulako gehien erabiltzen doguna. Gipuzkerazko formekin hartu-emon esturik ez dogun euskalkietako euskaldunontzat da, batez bere, neketsu eta gogorragoa aditz baturako bidea. Hemen ekitaldi latz eta gogorak behar izango doguz bizkaitarrok eta zuberotarrak aparteko eran. Arlo honetan, burua berotu eta ukondoak sakatu beharra daukagu. Entzun daigun Mikelek dinoskuna:

“Euskalkietan forma asko ditugu berdinak edo berdintsuak. Hor ez dugu eragozpenik. Baina forma ezberdinak ere hainbat ditugu: dizkizut eta deusudaz, zitzaizkidan eta jatazan, adibidez. Eta horretan kontuz ibili beharra

dugu euskaldun guztiak alfabetatu arte, horretan begirunez jokatu behar du Euskaltzaindiak Euskal Herri osoko euskalki bizi-bizien alde 1968. urtean Arantzazun Mitxelenak esana gogotan harturik:

Ez letorke kalte handirik oraingoz, beste puntuetan bateratsu bagentoz, aditz laguntzaile molde bat baino gehiago usatzetik. Egizta bait daiteke aditz laguntzaile horiek isomorfoak edo direla euskalki bakoitzean, eta euskalki batetik bestera ere bai, beharrik. (Euskera XIII. Bilbao, 1968, 218.).

“Egina dago egon aditz batu bat paperean – dinosku Mikelek–; baina, eginda egon arren, oraindik **zer azterturik asko** dugu aditzaren alorrean aditz batu bizi bat lortu baino lehen, zer azterturik asko aditza gaurkotu eta murriztu egiteko, herriak berak egin duen legez, zer aterturik asko aditza ondasuntegi nazkagarri bihur ez dakigun”.

Mikelek, bada, euskalkiak eta hizkera aintzat hartzea eskatzen dau, bizia sekula ere ezin baztertu daitekelako eta, beste alde batetik, ikarea sartzen deutso hainbeste bidexkaz josia dagoan aditzaren munduak. Izan ere, higuin-garri eta nazkagarri gertatzen jako hainbeste aditz formaren korapiloa, baso ilun eta hertsia iruditzen jako. Begira zelan adierazten deuskun ikara hori, Irun Saria irabazi eban “Higidura berdez” deritxon bere olerki liburuan:

Ondasuntegi nazkagarria

“Pinu gehiegiz
pinuturiko
pinudi,
lehenagoko pitxiz
pitxituriko
baserri,
kalearen kalez
kaletutako
hiri,
hitz-jario lakarrez
lakartutako

irradi,
nire eztarri.
Bagenieazazu,
bagenieazkizu...
Hau larria!
Gaizki dut eztarria.
Zinatekete,
lekizkizueke...
Hau estua!
Aditz
bortitz
madarikatua!
Diezazkigukezu,
badiezazkizuegu...
Asaben ondare
mamua!
Armiarma sare
alua!
Ez irten ez sartu,
ezin arnasarik hartu.
Gintzaizkizuekeen,
genieazkizuekeen,
ziezazkizuekeen...,
ele traketsa,
zintzaizkigukete...,
sukar ametsa,
liezazkizuekete,
niezazkizuekeen,
hieazkigukeen...,
ene bada ta ni!
Hala bedi,
amen.
Irratiko
hiriko

baserriko
pinudiko
hitz-jario lakarrez
ta kalearen kalez
ta lehenagoko pitxiz
ta pinu geihiegiz
eztarria zait bete
ta itoko naute.
Ai!
Ez dut nahi
hilterik
gazterik!
Hau zorabio
Ta eldarnio...!
Hainbeste era...,
zertarako?
Zuka, hika
(to ta no)
Ta, gainera,
berorika?
Hau amets higuigarri!
Hau irudipen izugarri!:
Zer da hori?
Traste zaharren museo,
aitonen mausoleo
ahal naiz ni?
Kanposantua?
Mutuaren kantua?
Azken fina
denontzat berdina
ta hilobi hotza
erdararen bihotza?
Betiko hilik,
Isilik...

Ken
erraztu
ahalbait lehen
ta mehaztu
nire eztarriko
pinu sintetiko
ta laguntzaile
hiltzaile
diren
pinuak.
Ken
aspergarri
gogaigarri
diren
mamuak.
Egin
nirekin
presaka
entresaka,
ito ez nadin.
Egin
nirekin
presaka
entresaka
bizi nadin”
(ik, 29-31 or.).

Baina, nire ustez, ondasuntegiak ez dakar kalterik, munduko beste hizkuntzetan ere ez daukan antzera. Hori bai, forma batzuk erabiliagoak izango dira eta beste batzuk ganbaran gordeago egon beharko dabe, bidezko dan lez. Honelan inoan Koldo Mitxelenak Bergarako Batzarreko alkarrizketan:

Mundu guztiak gogoan daukala, nahiz eta guk aditza era zabalean argitara, guk geuk ez ditugula erabiltzen hor agertzen diren gehienak. Ierarkia bat jarri behar genuke.

Beste alde batetik, maite ditu Mikelek aditz erabilera zaharrak. Euren bizia, ostera, gaur egunean laburra eta urria denez, baztertu egingo leukez, euskalki eta euskera batuarentzat kaltegarri gerta daitekezalakoan:

Aditza sakondu ondoren, oso maite ditut aditz erabilera zaharrak. Baina jatorrenak izanik ere, oso leku gutxitan erabiltzen diren aditz joskerak eta inon erabiltzen ez direnak erabiltzea kaltegarri da euskalkientzat eta euskara batuarentzat, komunikabide ez den zerbait huts eta hotz bihurtzen dalako honela euskara... Sar badadi (baledi), apur badezat, eror dadinean eta horrelako formak ere pilaka ikusten dira gaurko gramatika, método, aldizkari eta liburu batzuetan, horri esaten diote esan ere euskara batua batzuk eta. Baina herrian ez dira erabiltzen. Herriak sartzen bada, apurtzen badut, eta etortzen denean edo datorrenean erabiltzen ditu.

Honetan ez nago Mikelekin eta sekula ez naz egon (sarri erabili izan dogu gai hau geure artean). Berak, nik eta beste askok ere ez geunkez erabili izango erretzasunez eta edozeinek ulertzen deuskula, gaur darabilguzan aditz forma asko, irakurri eta ikasi egin ez bagenduz. Ni ez nago hizkuntza txirotu daikeen jokera horreen alde. Bestea bai onartzen eta irrikatzen dot: aditz forma guztiak aztertuz hierarkia bat lortu behar dogula, era eta aldi behine-netatik hasi eta oso gitxi erabiliak direnetera arte mailadi egokia eginez.

“Forma hauk, behar den bezala esanez gero, ez da euskaldunik, ulertuko ez digunik, Mikel” inotson Patxi Altunak Mikeli, hitzaldi osteko alkarrizketan—. “Era hauk gorde (egin) behar ditugu alfabetatze mailan erakutsiz”. Honetan, oso-osoan, Patxi Altunak agertu eban eretxiaren alde nago.

Halanda guztiz bere, arrazoi handia dau Mikelek, nire ustez, aditz “sub-standar” bat eskatzen dauanean. Beti bezala, indarkeria- eta agintari-keriaren aurka agertzen jaku, bizkaitar, lapurtar eta zuberotarrentzat batu bizi baterako bideak egoki urratuak izan daitezcan.

“Oraingoz, –dinosku berak–, aditz ‘sub-standar’ bat, baturantzako maila bat egitea eskatuko nuke bizkaitarrentzat eta lapurtar eta zuberotarrentzat ere bai agian, euskara bizitik batu bizirantz goazalarik, ahalbait arinen eta egokiro joateko. Bestelan, Bizkaian behinik behin, nik neuk ez dut beste bide egokiagoarik eta errazagorik ikusten”.

Hori guztia aintzat hartuz, Joseba Intxaustik proposamen bat egin eban Bergaran:

Goizeon ikusi dira dato batzu, bizkaitarrek badituztela halako eragozpen berezi batzu eta laguntza berri batzuren beharra. Nik proposatuko nuke, bide hortatik, ea posible den Euskaltzaindiak arazo hau azter dezan eta sumatzen den arazo hori, nolabait bide praktikoa batetara eramateko modurik egingo ote lukeen.

Eta guk ere Mikelen eta Josebaren guraria eskari sendo bihurtu gura geunke, aditzaren baturako bidea egoki zabaldua izan daiten, inor baztertu eta zapaldu barik.

3.2.4. Joskera

Mikelek ez ebazan aztertu euskalki bakotxaren joskera motak eta apartekotasunak, baturako bide zuzena zein izan eitekean azaltzeko.

Galdegaiaren legeak jagon beharra adierazo deusku sarri, azken urteotan erdal hizkuntzen ikutuz eta eraginez kutsatuak gagozala uste daualako. Hemen ere ez jakoz atsegin eta ez ditu gogoko idazle zahar askoren jokabideak; izan ere, ikasiak eta eskolatuak izanik, erderen menpeko diralako dauka. Badau arrenkura, bestalde, gaurko idazle batzuren jokaeraz ere, joskeraren giltza eskuratu barik idazten dabelako, erdal joskera nabaritzen jakela.

Dana dala, badirudi une honetan ez dauala hainbesteko eragozpenik sortzen joskereak euskeraren batasun bidean, edota oraingoz, (1978an), beste arazo batzuk dabela lehentasuna eta premia larriagoa.

Amitzeko

Mikelek, erraiak irakiten dituala, samurtasun eraginkorrez maite izan dau gure herria eta herri osoarentzat komunikabide egoki, zentzunezko eta bizi bat irrikatu dau. “Bide bat hartu behar da, –dinosku berak–, bestela, lotsa-

garría delako eta herri batentzat ere azkena delako, eta horrek negargura ematen dit. Batu batetara jo nahi dudalako”.

Eta nik Lizardiren olerkiaren atal bat irakurriz egiten deusuet neure ba-kezko agurra, guztiok “baturantz” ganoraz eta artez jo daigula eskatuz:

“Lena zegoen orañaz
ele gozoka. Bitzuok
mintzo beraz ziarduten.
Ene asaben lokarri zarra,
Yaunari zor, etzan eten”.

Etorkizuna

“Ordun eguzkiz yantzi zan
asaba zarren baratza;
ordun zuaitzak igaliz,
ordun baratza leneratu zan
mugak berriro zabaliz.
Ta len ikusi-gabeko
zuaitz berri bat zegoan
erdian, guzien buru...
Aren gerizak erri-baratzak
ezin-ilkor egin ditu.
Nire Tabor-mendi: nire
baratz zarraren antzalda!,
egi, mami, biur adi:
lenaren muñak aldatu beza
baratz zarra baratz berri!”
(ik, J.M. Agirre “Lizardi”, Bihotz-begietan, Erein, Donostia, 1983, 195-197 orr.).

“Lehenak eta orainak
maitasun eguzki pean bat eginik
bizkortu begie baratze zaharra
guztiori opari eskeiniz

BATASUNAREN FRUTU BARRIA!

Halan bedi”

1980-04-15ean

- * Euskaltzaindiaren Bergarako Batzarrerako (1978) Mikelek prestatu eban berbaldiaz baliatu naz, gehienbat, sarri-sarri haren aipamenak eginaz. ZARATE MIKEL, “Euskara batua ta euskalkiak”, Bergara, 1978-IX-5. 557-568 Ik. Euskera XXIV (2. aldia) 1978-2. Bilbo